

ERABAKIA, EPAIMAHAIARENA, HIRUGARREN SAILKAPEN TALDEA, TEKNIKARI ESPEZIALISTEN KATEGORIAN, KIMIKA ESPEZIALITATEAN, LAN KONTRATUDUN LANGILEAK SARTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2018KO AZAROAREN 2KO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoarekin 3. puntuaren jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakietan), Hirugarren sailkapen taldea, Teknikari Espezialisten kategorian, Kimika espezialitatean, lan kontratadun langileak sartzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.- Oposizio-faseko ariketak zuzentzea, eta txanda irekiko gaindituen behin-behineko zerrendak egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

BIGARRENA.- Zerrenda horiek EHUko enplegu-atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp?prcs=265) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

HIRUGARRENA.- Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gainditutako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioren bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

LAUGARRENA.- Adierazi behar da interesdunek eskabidean alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagiria eta kopia aurkeztu beharko dutela erkaketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia.

Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagiria, kautelaz, oposizio fasea gainditu ez dutenek, baldin eta errekurtsioa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gainditzea ekar badezake.

Bestalde, UPV/EHUK ofizioz aurkeztuko ditu UPV/EHUz zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztagiria, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.

Gainontzeko zerbitzuak egiaztatu egin beharko dira egiaztagiri bidez, eranskinetan jasotako ereduari jarraituz.

BOSTGARRENA.- Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko erregistroetan aurkeztu ahal izango da. Era berean, eskariak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aipatzen diren bideak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4. art.), lege horrexetako azken xedapenetako zatzigarrenak erregistro elektronikorako ezartzen duen salbuespenarekin (hau da, erregistro elektronikoa dagozkion xedapenak hasiko direla ondorioak sortzen legea indarrean sartu eta bi urteren buruan).

Leioa, 2019ko abenduaren 12an

Epaimahaiko idazkaria:

Juan Mª Apaolaza Estensoro